

EUSKARAREN ERABILERA UPV/EHUko **ADMINISTRAZIO ZERBITZUETAN**

0.- SARRERA

1.- EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO I PLANGINTZA

2.- EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO II ETA III PLANGINTZA

3.- II. ETA III. PLANGINTZALDIETAKO ERABILERA PLANAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA EMAITZAK

3.1.- Helburuak

3.2.- Ekintzak

- A.- urratsak
- B.- metodologia
- D.- AZPidazki

3.3.- Egindako lanaren eragina eta balorazioa

4.- EUSKARAREN PLAN GIDARIA

4.1.- Jendaurreko arreta elebiduna ematea

4.2.- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erraztasunak

- 4.2.1.- Liberazio kopuruak gehitzea*
- 4.2.2.- 3. Hizkuntza Eskakizuna lortzea*

4.3.- Erabilera planak garatzea hainbat ikastegitan euskararen erabilera sustatzeko.

- 4.3.1.-Euskara-planaren faseak*

EUSKARAREN ERABILERA UPV/EHUko **ADMINISTRAZIO ZERBITZUETAN**

0.- SARRERA

UPV/EHUk 80ko hamarkadan bere ibilbidea hasi zuenetik, herri administrazio zerbitzua den aldetik, bere plangintzak egin izan ditu.

Egia da, bertan, oso desberdinak diren hiru talde daudela, baina, hala ere, unibertsitateak bere osotasunean ondo funtzionatzeko, batak bestearen beharra dauka eta ezin daiteke unibertsitatea ulertu hiru talde hauetako bat falta izanez gero. Alde batetik, ikasleak: unibertsitateko bezeroak. Bestetik, irakasleak: ikasle horiei zerbitzua eskaintzen dietenak euren hezkuntza osatzeko, eta unibertsitatea kudeatzen dutenak. Eta, azkenik, eta gaur talde honi buruz arituko gara, administrazio eta zerbitzuetako langileak, unibertsitateko kudeaketa administratiboa egiten duen taldea.

Oso garrantzitsua da 3 taldeak kontuan izatea euskararen inguruko plangintza bat egiten denean. Eta unibertsitateak ez du egundo plan berezirik egin talde horietako batentzat bakarrik. Normalizazio plan bat egiten denean edo diseinatzen denean, UPV/EHU bere osotasunean hartuta egiten da. Plana denentzat egiten da, nahiz eta kolektibo bakoitzari neurri desberdinak ezarri.

1.- EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO I PLANGINTZA

Euskal Herriko Unibertsitateko **Euskararen Normalizaziorako I. plangintza** 1990. urtean jarri zen abian eta bederatzita bat urte egin zituen indarrean.

Plangintza hartako helburu nagusiak hauek izan ziren:

- Irakaskuntza euskaraz eskaintzea, ordura arte gaztelaniaz eskaintzen zen gehiena.
- Testu liburuak euskaraz argitaratzea, irakaskuntza euskaldunaren lagungarri izateko.
- Ikerkuntza euskaraz egin zedin bultzatzea.
- Eta, azkenik, gaurko gaiarekin lotuta dagoen administrazio eta zerbitzuetako langileen euskalduntze prozesua bultzatzea. Baina plangintza hartan AZPkoen euskalduntzea jorratu zen gehienbat; hain zuzen, lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzea eta derrigortasun datak. Erabileraren kontua II. plangintzan eta gaur egun indarrean dugun Plan Gidarian jasoko ziren.

Azken finean, helburu nagusia euskara normaltasun osoz erabiltzea eta gaztelaniak zuen egoera berberera heltzea zen.

2.- EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO II ETA III PLANGINTZA

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Normalizaziorako II. plangintza 1999ko martxoaren 3an onartu zuen UPV/EHUko Gobernu Batzarrak. Eta hirugarrena berez ez zen egin; bigarrenaren iraupena luzatu egin zen, Plan Gidaria egin den arte.

Horrela, 1999an sortu zen II. plangintzaldiak bost urteko indarraldia izango zuen, 2003/04 ikasturte artekoa, hain zuzen. Baina epe horiek ez ziren bete, eta harrezkero, plan gidaria egin artean, bigarren plangintzaldiak luzapen bat izan zuen.

Zergatik egin da hori horrela? Zergatik ez dugu izan UPV/EHUn Normalizaziorako III. plangintzarik?

Kontuan izan behar da unibertsitatean egiten diren plangintzek ez dietela eragiten administrazio eta zerbitzuetako langileei bakarrik, bertan irakasleak eta irakaskuntza ere parte garrantzitsu bat dira. Beraz, plangintza bat diseinatzen denean, UPV/EHUren osotasunerako egiten da plana, bai irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.

Kontuan izanda Europako Unibertsitate Eremua eraikitzeke unibertsitate-erreforma martxan zegoela, Bolognako Adierazpenean (1999) iragarri zena, eta erreforma horren helburu nagusia Europako ikasketak bateratu eta elkartzea zela. Horrek hizkuntza-normalizaziorako plan berri bat egiteari buruzko zalantzak sortu zizkien UPV/EHUko arduradunei. Dударik gabe, edozein planek nahitaez izan behar zuen euskarazko irakats-eskaintzari buruzko atal garrantzitsua, oinarrizko helburu eta jarduerak jasoko zituen. Hori ikusita, honako galdera hau sortu zen: egin al zitekeen planik, jakin gabe gure unibertsitatean zein titulu eskainiko ziren, zein ikastegitan eta zein egoeratan? Egoera behin-behinekoa eta iragankorra zela kontuan harturik, erabaki garrantzitsuak hartuz diru publikoa alferrik gastatzeko beldurra zegoen.

Azkenik, barne-hausnarketa egin ondoren, argi ikusi da gehiago direla plan berri bat egitearen aldeko argudioak, kontrakoak baino.

Beraz, plan berriaren ildoak datozen urteetan sortuko diren egoerei zentzuz eta tentuz erantzuteko balio behar du. Horregatik “**Euskararen Plan Gidaria**” izango da, eta ez “Normalizaziorako Plana”. Baina plan horren nondik norakoak gero azalduko ditugu, orain goazen II. Plangintzaldiko ekimenak azaltzera.

II. eta III. Plangintza horietan eman zitzaizen bultzada handia UPV/EHUn erabilera planei eta bertan sortutako erabilera taldeei, administrazio eta zerbitzuetako langileen euskalduntze prozesuan hain beharrezkoak ziren erabilera talde horiei.

Erabilera planen helburua nagusia izan zen AZPkoek lanean euskara erabiltzeko zituzten zailtasunak aztertzea eta ohiturak aldatzea. Batez ere, ikerketa baten ondorioz emaitza hauek lortu ziren:

- AZPko langileen artean, hizkuntza eskakizunen bat egiaztatua zuen langileen kopurua %46koa zen, ia erdia. Lorpen hori I. plangintzaldian

gertatu zen, baina erabilera oso urria zen. Hori izango zen hurrengo 8 urteetako erronka.

Datu horiek argi erakusten zuten euskara erabiltzeko gaitasuna egon bazegoela AZPkoen artean; beraz, erabilera bultzatzeak mesede egingo lioke langile askori. Ordu arte hizkuntza eskakizuna izan arren, hainbatek ez zuten euskara erabiltzen.

3.- II. ETA III. PLANGINTZALDIETAKO ERABILERA PLANAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA EMAITZAK

3.1.- Helburuak

Langileen artean euskararen erabilera areagotzea izan zen **helburu** nagusia. Hala ere, honako hauek ere kontuan hartzekoak ziren:

- eguneroko lana euskaraz gauzatzeko orduan langileek zeuzkaten zailtasunak hauteman eta konponbideak aurkitzea.
- AZPko langile euskaldunak eta euskalduntzeko bidean zeudenak aktibatzea, ahalik eta gehien euskaraz egin zezaten.
- gero eta maila txukunagoa hartzen zuten langile euskaldun berriak motibatzea eta euskara erabil zezaten laguntzea.

3.2.- Ekintzak

A.- Urratsak:

Erabilera taldeak UPV/EHUren barruan, lanean euskararen erabilera handitzen laguntzeko taldeak, 2002tik 2007 arte aritu izan dira lanean. Taldeak hainbat aldaketa izan badituzte kopuruan edo osaeran (talde batzuk desagertu, berri batzuk abian jarri, kide berriak hasi...), beti antolatu dira **lan motaren** arabera. Eta UPV/EHUren kasua kontuan izanda, *atezainak* eta *administrazio laguntzaileak* direla talderik jendetsuenak, horrela antolatuta bultzatu da erabilera.

Hasierako erabilera taldeak, 2002tik 2005era bitartean, EHUKo atal elebidunetako AZPko langileez osatutako taldeak izan ziren, lanbideen edo lantokien arabera elkartuak. Lanorduetan biltzen ziren eta helburu nagusia zen euskaraz lan egiteko sumatzen zituzten zailtasunak identifikatzea eta horiek gainditzeko proposamen zehatzak egitea.

Ordu arte izandako esperientzia hori, 2005etik aurrera, beste ikastegi eta zerbitzuetara ere zabaldu genuen. Hain zuzen ere, ez ziren atal elebidunak bakarrik kontuan izaten, gainontzeko guztiak ere bai. Zergatik? Ba, atal elebidunak ez ziren zerbitzuetan ere bazeudelako euskal hiztunak; alegia, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta zuten langileak eta erabileran bultzada bat behar zutenak.

B.- Metodologia:

Metodologiari dagokionez, zailtasunak identifikatzeko eta gainditzeko lan horretan, betiere saiatzen ginen bileretan parte-hartzea bultzatzen: langileek berek ezartzen zituzten helburuak, lehentasunak, erritmoa...

Salbuespenak salbuespen, talde hauek hamabostean behin elkartzen ziren, bi orduko saioetan.

Bilerek, normalean, bi zati nagusi izan ohi zituzten:

- 1) **Ekintzak**: erabilera handitzeko ekintza edo jarduera zehatzak, langileen inguru hurbilari begiratuta.
- 2) **Trebakuntza**: langileak euskaraz trebatzea, langileen beren gabeziak betetzera bideratuta.

UPV/EHUren egitura konplexua aztertuta eta kontuan izanda Euskal Autonomi Erkidegoko hiru lurraldeetan dituela egoitzak, eta bakoitzean hainbat fakultate eta eskola dituela, ez zen erraza izan erabilera taldeak eratzea.

Hiru berezitasun izan ziren kontuan hartzekoak taldeak eratzeke orduan:

1. Erabilera taldeak lurraldeka antolatu ziren, hau da zein campusetakoak ziren kontuan izanda.
2. Hasieran, atal elebidunetako langileekin osatutako taldeak izango ziren, bertan hizkuntza eskakizuna egiaztatua zuten langileen kopurua handiagoa zelako.
3. Haien lanaren arabera antolatuta egongo ziren. Idazkariak, alde batetik, atezainak, bestetik, liburutegikoak beren aldetik, eta zerbitzu orokorrak, bestetik.

Ekintzen aldetik, hiru urte hauetan honako hauek landu dira euskararen erabilera areagotzeko lan-gune desberdinetan. Betiere lan-gune bakoitzeko langileekin beren premiak ikusita aukeratu dira.

Bi motatako ekintzak bereiz ditzakegu:

- **Barrura begirakoak**. Taldekideei zuzenduak, bai lantzeko orduan, bai emaitzetan, kanpokoek zuzenean ikusten edo nabaritzen zailak direnak. Horrelakoak dira, besteak beste:

- Mintzagrama, harremanen sarea, konpromisoak...
- Euskal hiztunak identifikatu lan-guneetan, laneko harremanen sarea landu eta emaitzetatik konpromisoak hartu gauza txikiak egiteko. Batez ere haien arteko komunikazioa euskalduna izatea.
- Norberaren hiztegia lantzea.

- **Kanpora begirakoak**. Lantokian eragin zuzena dutenak eta taldetik kanpokoek ere ikusten dituztenak. Horrelakoak dira, besteak beste:

- Ohar-tauletako informazioa euskaraz jartzeko ahalegina egitea.
- Kartelak elebitan jartzea.
- Hizkuntza paisaia aztertu eta elebidun bihurtzea.
- Bulegoko materialaren hiztegia lantzea.
- Bulegoko karpeten bizkarrak elebidun jartzea. Gehienetan erdaraz bakarrik jartzen ziren eta.
- “Bai esan” kanpaina telefonoan lehen hitza euskaraz esateko.
- “Zergatik euskaraz?” kanpaina. Erabilera taldeetan aritutako lan talde batek kartel bat diseinatu zuen euskaraz hitz egiteko bost arrazoirekin. Kartel hori koloretan atera, eta UPV/EHUko zerbitzu guztietara bideratu zen gainontzeko lankideak ere animatzeko euskaraz egitera.
- Idazkaritzetako hainbat agiri, inprimaki, gutun, agurrak eta abar euskaraz egiteko bideak aztertzea, laneko hiztegi berezia landuaz. Horretarako **AZPidazki** izeneko tresnari aipamen berezia egin behar zaio.

D.- AZPidazki

AZPko langileek euskaraz lan egiten laguntzeko aplikazio informatiko hau 2004ko hasieran jarri genuen abian. Berez, oso tresna baliotsua eta erabilgarria da lanerako, langile gehienek esku-eskura dutena.

Helbide honetan dago, Euskara Errektoreordetzako webgunean:

www.ehu.es/azpidazki

Lehenik eta behin, aplikazioa amaitu ondoren, langileei ezagutarazi genien: gutun pertsonalak, triptikoa, artikulua *Campus*a aldizkarian, posta elektronikoko bidezko mezua bidaliz langile guztiei... Halaber, AZPidazki abian jarri zenetik, hainbat bide eta bitarteko erabili ditugu AZPko langileei tresnaren berri emateko: propaganda kanpaina eta, batez ere eta interesgarriena, AZPidazki erabiltzen ikasteko ikastaroak.

Hala ere, tresna bizia eta dinamikoa izango bada, beharrezkoa da aldi behin berritzea eta eguneratzea, eta ahal izanez gero, erabiltzaileen premietara ahalik eta gehien gerturatzea. Horregatik, urtean behin berritu egiten den aplikazioa da eta eduki berriak sartzen zaizkio. Horretarako, langileen iradokizunak izaten dira kontuan, bai AZPidazkin bertan egindakoak, baita erabilera taldeen bidez egin direnak ere.

Gaur egun arte, 3 ikastaro eman dira:

- 2005eko ekainean.
- 2006ko azaroan.
- 2008ko abenduan, AZPidazkiri irudi berria eman diogula aprobetxatuz.

3.3.- Egindako lanaren eragina eta balorazioa

Erabilera taldeen helburu nagusia euskararekiko ohiturak eta jarrerak aldatzea da, bai norberarenean, baita lankideenak ere. Horri dagokionez, ikusi genuen erabilera taldeetan zebiltzan **taldekideak ari zirela ohiturak aldatzen, “txipa aldatzen”,** lanean gero eta

euskara gehiago erabiltzen. Baina aldaketa guk nahi baino askoz ere motelagoa zen, eta batzuetan urratsak ez ziren izaten guk nahi bezain sendoak.

Batez ere oso zaila zen erabilera taldeetan landutakoa **gainontzeko langileengana** islatzea. Kontuan izan ez garela enpresa txiki batez ari, baizik eta 1000 langile baino gehiago duen erakunde batez.

Ildo horretatik, bageneukan kezka nabarmen bat: zein aukera zegoen honelako taldeekin jarraitzeko. Kezka nagusi bat agertu zitzaigun eta denborak erakutsi digu ez genbiltzala oker. Erabilera taldeek balio dute taldekideek euskararen aldeko txipa aldatzeko eta taldeotan parte hartzen dutenen kontzientziazioa eta erabilera handitzeko, baina taldeon eragin-eremua oso txikia da. Gehienetan gertu-gertuko lantokira bertara baino ez dira iristen, eta EHUren erraldoitasunean ahalegin hori, berez handia izanagatik, txikia geratzen zen.

4.- EUSKARAREN PLAN GIDARIA

2007ko ekainaren 21ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak Euskararen Plan Gidaria. UPV/EHUko Euskararen plan gidariak hainbat helburu ditu, baina horien guztien artean, AZPkoei (administrazio eta zerbitzuetako langileak) dagozkienak izango ditugu kontuan eta garatuko ditugu ondorengo lerroetan.

- 4.1. Jendaurreko arreta elebiduna ematea.
- 4.2. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke erraztasunak.
- 4.3. Erabilera planak garatzea hainbat ikastegitan euskararen erabilera sustatzeko.

4.1.- Jendaurreko arreta elebiduna ematea

Unibertsitatea ezin da konformatu hizkuntza-prestakuntza hobetzearekin; haratago jo behar du. Izan ere, erabaki estrukturalak ere hartu behar ditu, jendaurreko lanpostuetan hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituzten langile gehiago egon daitezela bermatzeko.

Euskarazko ikasketen eskaria gorantz doan bitartean giza baliabideen bilakaera mantsoagoa da, eta desoreka horrek hainbat ondorio izan ditu, besteak beste, administrazio eta zerbitzuetako langileen arloan, Lanpostuen Zerrendan elebidunak ez diren jendaurreko lanpostu asko eta asko baitaude oraindik. Hizkuntza biek tratu bera jaso behar dutela xedatuta dago UPV/EHUko Estatutuetan, eta hori betetzeko ezinbestekoa da gaur egungo egoera hobetzea.

Horretarako hainbat neurri hartu beharko lirateke, jendaurreko lanpostu guztiei derrigortasun data jartzea adibidez, baina ezin dira denak batera hartu. Orain arte, 86/97 dekretuak agintzen zuenaren arabera lanpostu batzuei jarri zaie derrigortasun data, dekretuak jasotzen zituen ehunekoaren arabera.

Baina aldaketak egin nahian, **lehen pauso** bat eman da plan gidarian: jendaurreko lanpostu batzuetan, alegia **atezaintzako** lanpostu guztietan, jendearekin harreman zuzena dutenez, **derrigortasun data ezartzea**.

Bai, badira beste hainbat lanpostu ere jendaurreko arreta ematen dutenak, administrazio laguntzaile batzuk alegia, baina momentuz horiek alde batera utziko dira eta 2012 arte indarrean egongo den plan honek atezaintzetara mugatuko da.

Izan ere, atezaintzako langileei eskatzen zaien euskarak ere ez du zertan oso konplexua izan. Harrerako oharrak eman, argibideak eta adeitasunezko esaldi laburrak izaten dira orokorrean. Eta eskatzen zaien hizkuntza eskakizuna lehenengoa izaten da.

Plan Gidaria martxan jarri zenean UPV/EHUko **atezainen kopurua 215 langilekoa** zen. Horietatik 103 lanpostuk zuten derrigortasun data, denetan gauditua. Gainontzeko 112 lanpostuek ez zuten derrigortasun datarik. Plan gidarian 112 lanpostu hauei ere derrigortasunak finkatu zaizkie; betiere gehienezko epea 2012 izanik.

Hartara, orain arte derrigortasun datarik ezarrita ez duten atezain nagusi eta menpekoen lanpostu guztiei ezarri egin zaie. Horietako batzuek plangintza aldiaren hasierako data dute, eta beste batzuek berriz, amaierakoa.

4.2.- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erraztasunak

4.2.1.- Liberazio kopuruak gehitzea:

Kontuan izanda aurreko atalean aipatutako lanpostuetan derrigortasun datak jarri direla, eta UPV/EHUko langile kopurua gorantz doala, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erraztasunak ematea da helburua. Horretarako, UPV/EHUren barruan euskara ikasteko liberazioen kopurua urte askoan egon da aldatu gabe, ohituragatik edo akordio ezagatik. Horrela, lanorduen barruan ikastaroetara joateko dauden aukerak hauek izan dira:


- 5 orduko 30 liberazio.
- 2 orduko 180 liberazio eman izan dira azken urteotan.

Unean uneko doikuntzak salbu, kupo horiek bere horretan mantendu dira, nahiz eta azken hamar urteotan AZPkoen plantilla nabarmenki handitu den.

AZPkoen plantillak izandako gehikuntza (1997-2006)

Urtea	Langile kopurua	Gehikuntza (%)
1997	1151	
1998	1215 (+64)	%5,27
1999	1253 (+38)	%3,03
2000	1284 (+31)	%2,41
2001	1353 (+69)	%5,1

2002	1389 (+36)	%2,60
2003	1464 (+75)	%5,12
2004	1481 (+17)	%1,15
2005	1574 (+93)	%6
2006	1650 (+76)	%4,61
GUZTIRA	499	Gehikuntzaren urteko batezbestekoa: %3,92



Hortaz, eta talde zabalago bati euskalduntzeko aukera emateko asmoz, **zerrenda bietako liberazio-kopurua handitu egingo da**, 5 orduko liberazioak **30** izatetik **40** izatera pasatuko dira eta bi orduko liberazioak, berriz, **180tik 220ra**. Euskara ikasteko 5 orduko liberazioez baliatzen diren langileek konpromisoa hartu behar dute beren lanpostuei derrigortasun data jartzeko –lanpostuak lehenagotik datarik ez balu, jakina– dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ondoren.

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiek eska ditzakete euskara ikasteko liberazioak. Modu honetara, euskalduntzean aurrera egiten jarraitu nahi duten administrazio eta zerbitzuetako langileek horretarako aukera izango dute.

4.2.2.- 3. Hizkuntza Eskakizuna lortzea

Ikastaldiaren ondoren 2. eskakizuna egiaztatzen dutenak euskalduntzat jotzen dira, nahiz eta jakin badakigu 2. HE lortzeko beharrezko gaitasunek ulermen, mintzamen eta irakurmenaren oinarriko maila baino ez dutela bermatzen. Gainera, idazmenean behe-mailako gaitasuna baino ez da eskatzen. Hortaz, esan dezakegu 3. HE dela euskaraz jarioz gaitasunez eta naturaltasunez jarduteko gaitasuna egiaztatzeko bermerik handienak eskaintzen dituen eskakizuna.

Orain arte, beren lanpostuari ezarritako 2. HE egiaztatuta zuten AZPko langileek ez zeukaten, hala nahi izan arren, lanorduetan euskara ikasten jarraitzeko aukerarik, eta beren euskara-maila hobetzeko aisialdiaz baliatuz behartuta zeuden.

Alabaina, gure ustez, elebitasun-maila handiagoa izatea lortu nahi duen erakunde honek esparru horretan ere politika proaktiboagoa bultzatu beharko luke, lanpostuak ezarrita daukan hizkuntza eskakizuna beteta izan arren beren euskara hobetzen jarraitzeko prest daudenei lagundu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, liberazioen beste **zerrenda** bat prestatu da. Aipatutako zerrenda goian azaldutako egoeran dauden **20** langileri zuzenduta egongo da, lanorduetan beteko da eta bi ordukoa izango da.

Liberatuta egongo diren langileak hautatzerakoan, gainerako liberazioetan ezartzen diren irizpideak erabiliko dira (lan-lotura: karrerako funtzionarioak, hutsik dauden lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak; atal mota: AE, A, B, C eta D; hutsik dauden lanpostuak betetzen ari ez diren gainerako langileak). Salbuespen bakarra, jakina, derrigortasun data izango da; izan ere, lanpostuak ezarrita daukan eskakizuna dagoeneko egiaztatu duten langileez ari gara.

Dena den, egia bada ere unibertsitateak, erakunde publikoa den aldetik, interes handia duela bere langileen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko, 3. HE lortzera bideratutako liberazio hauek ezin dira inolaz ere liberatutakoan lankideen lan-egoeraren kalterako izan. Horregatik, lankide horiei laguntzeko kontratazioak egiteko aukera aztertuko da, nagusiak premia hori dagoela justifikatzen badu.

4.3.- Erabilera planak garatzea hainbat ikastegitan euskararen erabilera sustatzeko.

Dena den, euskararen ikasketa-prozesua erraztera eta unibertsitateko ikasle euskaldunen kopurua geroz eta handiagoa izateak sortzen dituen premiak hobeto betetzera bideratuta dauden neurri horiek guztiak hankamotz gera daitezke, horiekin batera unibertsitatearen egunerokotasunean euskararen erabilera indartzea helburu duten beste neurri batzuk hartu ezean.

Jakin badakigu, euskal gizartean bezalatsu, unibertsitatean ere jauzi handia dagoela hizkuntzaren ezagutzaren eta erabileraren artean. Arrazoiak hainbat faktoreri lotuta daude, hala nola: iraganeko inertziak, gaztelaniaren eragin itzela, lan-unitate askoren osaera mistoa (hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituzten langileak erdaldunekin batera aritzea), 2. HEk dituen mugak, sarriegitan langile elebidunen borondatearen esku egotea eta egoera hori aldatzeko estrategia eraginkorrik eza.

Hori dela eta, UPV/EHUK euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginak egin ditu azken urteotan, atal elebidunetako lan bereko langileak bilduz erabilera taldeetan. Talde horietatik atera den etekina ona izan da; izan ere, hor dago “Atezainok euskaraz” materiala. Baina gehienetan ikusi da talde horietako jendea inplikatzeko zela, eta beren lanpostuetara bueltatzean oso zaila zela gainontzeko lankideak ere “kutsatzea”. Horretarako, ikastegi edo zerbitzu **osoa** kontuan hartu beharko litzateke.

Plan Gidariak bide hori indartzea proposatzen du, hiru berritasun garrantzitsu gehituta:

- a. Erabilera plan horiek zein ikastegi edo zerbitzutan ezarri erabakitzerakoan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: dauden premiak, egokitasuna eta borondatea.
- b. Planak neurgarriak izan behar dira. Abiapuntua kuantifikatu (“Nolako maiztasunez erabiltzen da euskara ikastegiaren administrazioan eta zerbitzuetan?”), jomuga finkatu eta helburu hori lortzeko urratsak zehaztu behar dituzte.

- c. Erabilera planak garatzearekin batera, hautatutako ikastegi edo zerbitzuetako langileen hizkuntza eskakizunak berrikusi egingo dira, ahal den neurrian egungo egiturazko baldintzak hobetzeko, hizkuntzaren erabilera areagotze aldera.

Horiei zuzenduta, deialdi irekiak egin dira aipaturiko atal eraginkorrak aukeratzeko.

Arrazoizkoena eta aldi berean eraginkorrena da, itxura batean, ahaleginak eta baliabideak premia handiena duten lekuetara bideratzea. Aukeraketa honetarako erabiliko diren irizpide nagusiak ondokoak izango dira:

- a. Erabilera plana garatzeko borontatea.
- b. Euskararen erabilera areagotzeko premia.
- c. Erabilera plana garatzeko egokitasuna.
- d. Campusen arteko oreka.

Ikastegiak daukan *premia* neurtzeko, eskaintzen dituen titulazioei dagokienez euskarazko taldeetan matrikulatu den ikasle kopuruari erreparatuko zaio. Ezohiko datuen eragina gutxitzeko, azken hiru urteotako ikasle euskaldunen batezbestekoa aterako da.

Egokitasunaren faktorea neurtzeko, berriz, ikastegi bakoitzean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua duten AZPkoen ehunekoa hartuko da erreferentzia moduan. Argi baitago euskaraz dakiten lagunen ehunekoa handia den lekuetan hobeto funtzionatuko dutela erabilera planek.

c) atalean adierazi denez, hamabost atal horiei dagokienez, Lanpostuen Zerrendan jasota dauden lanpostuak berrikusi egingo dira. Jendaurreko lanpostu guztiei derrigortasun-data ezarriko zaie, plangintza-aldiaren hasieran edota amaieran.

Zehatz-mehatz, ikastegien kasuetan, honako lanpostu hauek dira:

- Administratzailea
- Dekano eta Zuzendarien idazkariak.
- Atezain nagusiak eta menpekoak (unibertsitateko gainerako ikastegietan bezala).
- Idazkaritzetan diharduten langileak (administrazio-laguntzaileak eta bulegoen buruak)
- Liburutegietan diharduten langileak (arduradunak, laguntzaileak, teknikari laguntzaileak eta menpekoak).

Horiexek dira lehendik dauden Lanpostuen Zerrendako lanpostuetan egingo diren aldaketak. Beste alde batetik, komeni da, baita ere, datozen urteetan sortuko diren lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan Euskara Errektoreordetzak erabiliko dituen irizpideak finkatzea.

Irizpide horiek lau puntu hauetan laburbil daitezke:

- Goian azaldutakoari jarraiki, atezaintzetan kokatutako lanpostu guztiei derrigortasun-data ezarriko zaie. Jendaurreko A ataletan dauden lanpostuak baitira, zerbitzu elebiduna ematea eskatzen dutenak.
- Arrazoi berarengatik, hautatutako atal elebidun eraginkorretan, ikastegien kasuan, honako lanpostu hauei nahitaezko eskakizuna ezarriko zaie: administratzailea, bulegoen buruak, administrazio-laguntzaileak eta liburutegietako langileak. Zerbitzu orokorretan, berriz, kasuan kasuko azterketa egingo da.
- Ikastegi eta zerbitzuetako gainerako lanpostu berriei dagokienez, sortuko den lanpostu bakoitzaren ezaugarriak zehatz-mehatz aztertuko dira. Hizkuntza eskakizunaren txostena prestatzerakoan hainbat faktore hartu dira kontuan, hala nola: lanpostu horretan bete beharreko zereginak, jendaurreko harremanen maiztasuna, eta UPV/EHUko AZPko plantillaren eta, oro har, euskal gizartearen errealitate soziolinguistikoa.

Zerbitzu elebiduna bermatzea ezinbestekotzat jotzen den lanpostuei plangintza-aldi berriaren hasierako data (2008) ezarriko zaie, edo kasuaren arabera, Gobernu Kontseiluak lanpostuari onespren formala eman dion data. Jendaurreko harremanen maiztasuna txikiagoa baldin bada edo kategoria bereko lanpostu gehienek derrigortasun-data gaindituak badituzte, plangintza-aldiaren amaierako data (2012) jarri ahal izango zaie.

- Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, gainditutako derrigortasun-data duten lanpostuak betetzeko dagozkien hizkuntza eskakizunak egiaztatu beharko dira. Gainontzeko kasuetan euskara beti meritu gisa baloratuko da. 1. eta 2. hizkuntza eskakizuna esleituta duten lanpostuen kasuan, % 5etik % 10era bitartean baloratuko da. 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kasuan, berriz, % 11tik % 20ra bitartekoa izango da balorea. Portzentajeok prozesu bakoitzean lorturiko puntuazio osoaren gainean kalkulatu dira. Halere, gai honi buruzko adostasun zabaleko akordio zehatzik lortzen ez den bitartean, eskatuko diren portzentajeak ondokook izango dira:
 - 1. HE duten lanpostuetan: % 5
 - 2. HE duten lanpostuetan: % 10
 - 3. HE duten lanpostuetan: % 15
 - 4. HE duten lanpostuetan: % 20

Hori dela eta, Plan Gidariak diosenari jarraituta, ikastegi edo zerbitzu osoa barne hartuta, lau mikroplan gauzatzen hasi dira 2008ko udazkenean. Honako hauek dira:

Bizkaiko Campusa:

- Medikuntza eta Odontologia Fakultatea
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Arabako Campusa:

- Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea

Gipuzkoako Campusa:

- Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola

4.3.1.-Euskara-planaren faseak

Egitasmo honek **lau fase** nagusi izango ditu:

A.- Ikastegietako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen artean euskararen eguneroko erabilerari buruzko **diagnosia** egitea.

B.- Ikastegi bakoitzeko **plana diseinatzea**.

D.- **Plana garatzea**.

E.- **Planari segimendua egitea**.

A eta B faseak burututa daude. 2009an zehar D fasea beteko da, eta azkena aurrera begira egingo da.

Ondoren oso labur bilduko ditugu faseak.

A.- Ikastegi bakoitzeko diagnostikoa egitea:

Ikastegi bakoitzaren plana diseinatzeko lehen urratsa AZPkoen euskararen eguneroko erabileraren **diagnostikoa egitea** izan da. Euskarak ikastegian edo zentroan duen presentzia eta erabilera, AZPkoek duten euskararen ezagutza, ikastegiak orain arte emandako urratsak eta horien balorazioa, langileen euskararekiko espektatibak eta abarri buruzko datuak bildu ditugu eta ondorioak atera ditugu.

Diagnostikoa osatzeko, **informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili dugu**. Izan ere, adierazle kuantitatiboak oso tresna baliagarria dira abiapuntuko egoeraz jabetzeko, baina horiez gainera, informazio kualitatiboa erabiliz gero, egoeraz edo errealitateaz jabetzeaz gainera, errealitatea ulertzeko gai izan gara. Horregatik behar dugu, informazio kuantitatiboaz gain, informazio kualitatiboa ere. Horrela, diagnostikoan honako **informazioa** jaso dugu:

- *Ikastegiari buruzko informazio orokorra.
- *Euskarak ikastegian edo zentroan duen presentzia eta erabilera.
- *Langileek euskararekiko dituzten espektatibak eta iritziak.

Informazio hori jasotzeko aldiz, **hainbat bide** erabili ditugu:

- **Dokumentazioa jaso:** ikastegiaren irudia, kanpo-harremanak, barne-harremanak
- **Bisita egin** eta ikastegia ondo ezagutu, baita bertako langileak
- **Datu-bilketarako fitxa bete**, non fitxa horretan ahalik eta informazio gehien jaso dugu.
- **Elkarrizketa pertsonalak** egin dizkiegu AZPko langileei.

Jasotako informazio guztiarekin aurrediagnostikoaren txostena egin dugu. Aurrediagnostiko hori osatzeko eta kontrastatzeko ikastegi bakoitzean **batzorde bat**

sortu dugu. Batzorde hau euskara-planak iraun bitartean ariko da lanean baina diseinu fasean eta garapen fasean funtzio eta osaera ezberdinak izango ditu.

B.- Ikastegi bakoitzeko Plana diseinatu

Diagnostikoa oinarritzat hartuta, ikastegi bakoitzeko plana diseinatzeko Euskara Batzordeak hainbat bilera egin ditu.

Bilera horietatik hainbat emaitza eta eginbeharrekoak atera dira:

- Euskara-planaren irismena eta ardatzak definitu.
- 2009ko abendura bitartean landu ahal izango diren helburuak landu: zehatzak, neurgarriak eta langileek beraiek landuak eta adostuak.
- Xehetasunak definitu: neurriak, arduradunak, baliabideak, epeak eta segimenduko adierazleak.
- Euskararen eguneroko erabilera sustatu eta bultzatzeko ezarri beharreko jarduera-plana landu.

Hurrengo faseak, plana bera egin eta segimendua egitea izango dira.

Plana garatzeko:

- Planaren markoan garatzen diren ekintza guztiak koordinatu.
- Plana modu koherentean gara dadila bermatu.
- Helburuak lortzeko beharrezko baliabideak aurreikusi.
- Zehaztutako neurriei jarraiki, dagozkien helburuak garatu eta martxan jarri.
- Adierazitako epeetan ezarritako helburuen betetze-mailaren segimendua egin.
- Helburuak lortzeko komunikazio egokia bideratu.
- Helburuen adierazleen segimendua egin, baloratu, eta, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak proposatu.
- Neurri zuzentzaileak proposatu eta ezartzeko beharra baloratu, beharrezkoa denean.
- Planaren markoan lortutako helburuak mantentzeko eta egonkortzeko beharrezkoak diren ardurak zehaztu, eta erremintak nahiz baliabideak kudeatu.

Eta segimendua egiteko:

- Jarduera-planetan ezarritako helburuen betetze-maila ikusi.
- Ikastegietan eta AZPko langileen artean euskararen erabilera eta presentziak izan duen bilakaera.
- Euskara Planen egiturek egindako lana.
- Euskararen eguneroko erabilera sustatu eta bultzatzeko egin diren jardueren egokitasuna eta eraginkortasuna.
- Beharrezkoa balitz, aurrera begira landu beharrekoak.